



Usurbilgo Udala

USURBILGO UDALA ETA HURBILAGO-Usurbilgo Merkatari eta Ostalarien ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA

BILDURIK

Alde batetik, Itziar Aizpurua Aizpuru andrea, adinez nagusia, 72420960-S nortasun agiria duena,
HURBILAGO Usurbilgo Merkatari eta Ostalarien Elkartearen Lehendakari gisa,

Eta bestetik, Agurtzane Solaberrieta Mesa, 44166340-S nortasun agiria duena, Usurbilgo Udaleko alkatea,
Usurbilgo Udalaren izenean.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa eta kasuan kasuko ordezkaritza aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako, ondokoa

AZALDU DUTE

LEHENA.- Usurbilgo herri merkataritza eta ostalaritza indartzeko 2020an eguneratutako plangintzan aurreikusitako helburuak erdietsi eta finkatutako lan ildoak gara daitezen, elkarlanean jardungo dutela Usurbilgo Udalak eta Hurbilago Elkarteak. Plangintza horren garapenak, herri merkataritza eta ostalaritza sustatzeaz gain, bestelako onura kultural, sozial eta ekonomikoak ere ekarriko dizkiola Usurbilgo herriari. Elkarlanaren 2020-2024 epealdirako lan-ildoak ondokoak izango direla:

01. COVID-19ak eragindako krisi egoerari aurre egitea
02. Herritarren kontzientziazioan eragitea eta bezeroak erakartzea
03. Herrigune eta auzoetako merkataritza-eskaintza etengabe berritu eta sustatzea
04. Internetek eskaintzen dituen aukerei pixkanaka egokitzen joatea
05. Eragileen arteko saretzea sendotzea
06. Kontsumoa eta aisialdia uztartzea
07. Tokiko merkataritzaren berezitasun eta abantailak agerian jarriko dituen herrigune bat osatzea

BIGARRENA.- HURBILAGO elkarteak, 2006ko abuztuaren 22an sortu zen, bere bazkideen interes ekonomikoa, soziala, profesionala eta kulturala ordezkatzeko, defendatzeko eta promozionatzeko. Aldi berean, HURBILAGOk herria bera girotzeko eta alaitzeko, eta ingurunearen hobekuntza lortzeko, dagokion agintari, autoritate eta erakundeekin bitartekotza lanak egiteko helburua du.



Usurbilgo Udala

HIRUGARRENA.- HURBILAGO elkarteak eta Usurbilgo Udalak 2022rako sinatutako esparru akordioaren baitan jardungo dutela (lehen eranskina).

LAUGARRENA.- Sektoreko lan-mahai bat eratua dagoela, bertan Usurbilgo Udala, Hurbilago elkarteak eta Hurbilago bazkideen gabeko ordezkaritza bat egonik eta lan mahai horren egiteko Usurbilgo herri merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko onartutako plangintza aurrera eramatea izango dela. Aurrez adierazitakoa eta bi aldeen arteko lankidetzaren Udalerrirentzat onuragarria dela ikusirik, Usurbilgo Udalak eta Hurbilago elkarteak lankidetzaren hitzarmen hau izenpetzea erabaki dute, ondorengo klausula hauei loturik.

KLAUSULAK

LEHENA: Hitzarmenaren xedea honako hau izango da: merkataritza eta ostalaritzaren alorretan Usurbilgo herri merkataritza sustatu eta dinamizatzea helburu duten HURBILAGO elkarteak bultzatu, antolatu edota parte hartutako urteko jardueretako diru-laguntzak arautzea.

BIGARRENA: Hitzarmen honen bitartez, sinatzen den urte natural horretarako ekintzak diruz lagunduko dira. Hitzarmena urtero berrituko da Merkataritza Mahaian bi alderdiek, Usurbilgo udalak eta Hurbilago elkarteak alegia, aho batez hartutako adostasunaren ondorioz.

HIRUGARRENA: Diru-laguntza honako jarduerak hauetarako eman ahal izango da:

- 1 Merkatarien elkartearen beraren dinamika eta bazkideen inplikazio maila hobetzea.
- 2 Hurbilagotik antolatutako ekimenak, Usurbilgo Udalarekin elkarlanean arituta, Usurbilgo tokiko merkataritzako establezimendu ahalik eta gehienetara zabaltzea.
- 3 Usurbilgo herritar eta bezeroen fidelizaziorako promozioak eta komunikazio jarduerak antolatzea.
- 4 Usurbilgo herri merkataritza sustatzeko sentsibilizazio kanpainak antolatzea, bezero eta herritarrei zuzenduak.
- 5 Tokiko merkataritza dinamizatzeaz azokak eta herri ekimenak antolatzea.
- 6 Merkatarien eta sektoreko profesionalen prestakuntza sustatzea, bereziki informazio eta komunikaziorako teknologia berrien arloan.
- 7 Usurbilgo herri merkataritza eskaintza zabaltzea eta eraberritzea, horretarako, Usurbilgo Udalaren "Usurbil Zabalik" egitasmoaren baitan, Usurbilgo Udalarekin lan koordinatua eginez.
- 8 Ostalaritza sektorea dinamizatzea, herri-merkataritzaren zerbitzu-osagarri gisa. Horrez gain, ostalaritza sektoreko eragileen arteko elkarlana sustatzea, bereziki, sektoreari eragiten dioten udalari mailako egitasmoetan (terrazen erabilera, sexu erasoaren aurkako protokoloaren ezarpena, euskararen sustapena...).
- 9 Hurbilago elkartearen beraren eta Usurbilgo merkataritzaren digitalizazioa indartzea, bereziki "gertuago.eus" proiektu berriaren dinamizazio eta sustapen lana eginez, Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritzako establezimendu guztiekin. Usurbilgo Udalaren Usurbilgo herri merkataritza eta ostalaritza indartzeko 2020ko planean jasotakoari jarraiki, tokiko merkataritzaren



Usurbilgo Udala

digitalizazio prozesurako urrats berri bat eman zen 2021ean eta jarraipena izango du proiektu horrek 2022an ere.

LAUGARRENA: Hurbilago elkarteak, aldez aurretik diru-laguntzaren eskaera egin beharko du. Urteroko jarduera Plana eta dagokion aurrekontua Merkataritza Mahaian aztertu eta ebaluatuko da, eta beharrezkoa balitz, egitasmoaren garapen egokirako irizpideak finkatuko dira. Merkataritza mahaian ordezkatuak diren Usurbilgo Udalaren eta HURBILAGO elkartearen adostasun osoa, aho batezkoa, beharko du, kasuan-kasu, Udalak merkataritza arlorako kontratatua daukan enpresaren aholkularitza jasoko dutelarik.

Jarduera Planean honako hau zehaztuko da:

- Urte horretarako jardueren txosten zehatza.
- Jarduera hauei dagokien aurrekontua, sarrera eta gastuen zehaztapenarekin.

Urte horri dagozkion jardueren ¹ txostena eta kontuak berriz, hurrengo urteko lehendabiziko hiru hilabeteetan ekarriko dira Merkataritza mahaira, honakoak aurkeztuz:

- Urteko memoria: bertan zehaztuko dira burututako ekintza guztiak eta laburpen ekonomikoa.
- Egitasmoa egin izana egiaztatzen duten dokumentazio grafikoak (kartelak, foiletoak, egunkarietan ateratako berriak ...).
- Gastuei dagozkien fakturak.
- Beste erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eskatu edota eman dituzten beste diru-laguntzen adierazpena.
- Gizarte Segurantzarekin bere betebeharrak betetzen dituela adierazten duen ziurtagiria.
- Foru Ogasunaren agiria, betebeharrak fiskalak betetzen dituela adieraziz.

BOSGARRENA: Bi aldeek honako hau erabaki dute: Usurbilgo Udalak 2022 urterako HURBILAGO elkarteari luzatuko dion diru-laguntza 21.000,00€ eurokoa izatea, zenbateko horren xehetasuna honakoa izanik: 13.000,00€, "GERTU@GO" Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritzaren komunikazio eta digitalizazio proiektua aurrera eramateko (ikus 2. eranskina) eta 8.000,00€, Hurbilago elkarteak 2022an antolatuko dituen gainerako jarduerak garatzeko (ikus 1. eranskina: Usurbilgo Udala eta HURBILAGO Usurbilgo Merkataritza eta Ostalarien elkartearen arteko 2022ko esparru akordioa).

SEIGARRENA: Diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da: lehendabiziko ordainketa, diru-laguntzaren %90ekoa izango da eta Hurbilago elkarteak 2022ko jarduera-plana aurkeztu duenean egingo da; bigarren ordainketa berriz, gainerako %10a, 2023an egingo da, Hurbilago elkarteak 2022an garatutako jardueren eta egindako gastu eta diru-sarreraren behin betiko txostena aurkeztutakoan.

ZAZPIGARRENA: Lehen ordainketan aurreratu den diru-laguntza Hurbilagok egindako gastua baino handiagoa balitz, Hurbilago elkarteak Udalari itzuli egin beharko lioke diruz lagungarria den gastuaren gainetik jasotako zenbatekoa eta ez luke diru-laguntzaren bigarren zatia jasoko. Lehen ordainketan



Usurbilgo Udala

aurreratutako diru-laguntza Hurbilagok egindako gastua baino baxuagoa bada, bigarren ordainketa, diruz lagungarria den gauzatutako gastuaren araberakoa izango da, gehienez 2022ko diru-laguntza osoaren %10a izanik.

ZORTZIGARRENA: Udalaren diru-laguntza bateragarria izango da beste erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako diru-laguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, eta dirua itzultzeko beharizanen bat baino gehiago izanez gero, Hurbilago merkatarik elkartek dirua itzuli egin beharko luke.

BEDERATZIGARRENA: Hurbilago Merkatarik Elkartek, Udalak merkataritza arlorako kontratatua daukan enpresaren eskutik, programaturiko jardueren kudeaketa eta koordinaketa burutuko du. Hitzarmen honen barruan burutzen diren egitasmo edo jarduera guztien publizitatea euskaraz egingo da, eta bi hizkuntzetan egitea beharrezkoa balitz, euskarari emango zaio lehentasuna.

HAMARGARRENA: Hurbilago merkatarik elkartek, herriari zuzendutako eta Udalak diruz lagundutako ekintza guztietan, udalaren laguntza eta babesa jasotzen duela adieraziko du.

HAMAIKAGARRENA: Hitzarmen honetan jasotako beste betebeharez gain, Usurbilgo Udalarik dagokio:

- a Hitzarmena interpretatzea.
- b Hitzarmenean sor daitezkeen zalantzak konpontzea.
- c Herri-onurako arrazoiengatik hitzarmena aldatzea.
- d Hitzarmena amaitzea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko kontratu Legearen Testu Bateginean zehaztutako baldintza eta ondorioak betez.

Horretarako hartutako erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari eta hartzen diren unetik bertatik bete beharrekoak izango dira.

HAMABIGARRENA: Hitzarmen hau amaitutzat eman ahal izango da honako arrazoi batengatik:

- Sektore Publikoen Kontratu Legearen Testu Bateginean xedatutako arrazoiengatik.
- Kontratuaren klausuletan hitzartutako baldintzak ez betetzeagatik.

HAMAIRUGARRENA: Hitzarmen honen klausulak aldatzea edo zabaltzea ezin izango da egin bi aldean adostasunik gabe, interes publikoko arrazoiengatik izan ezik.

HAMALAU GARRENA: Hitzarmen honen izaera administrazio mailakoa izango da eta hitzarmenean zehaztu ez den guztiari dagokionez, dirulaguntzei ezargarri zaizkion arauak bete beharko ditu. .

HAMABOSGARRENA: Hitzarmen honetako alde biek hartzen dituzten betebeharrak edo erantzukizunak, eta elkarrengandik dituzten. eskubideak, honako legeriak arautuko ditu:



Usurbilgo Udala

- a) Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legea.
- b) Administrazio Publikoetako Kontratuen Erregelamendua (uztailaren 5eko 1098/2001 Dekretua), kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez doan heinean.
- c) Apirilaren 2ko Toki Korporazioetako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986 zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badoa.
- d) Herri Administrazioetako Diru-laguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea.
- e) Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinen bitartez diru-laguntza orokorrak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 legearena erreglamentua onartzen dena.
- f) Usurbilgo Udalaren Diru-laguntzei buruzko Ordenantza.
- g) Honetaz gain, zuzenbide administratiboko arauak eta bere kasuan zuzenbide pribatu arauak aplikatuko dira.

HAMASEIGARRENA: Hitzarmen honetatik sortzen diren auziak administrazioiko auzigaietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira. Nolanahi ere, bi alderdiek nahi izanez gero, auziak arbitraiaren bitartez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritz.

Bi alde dokumentu honetan azaldutakoa berretsi dute eta, hala jasota gera dadin, bi kopian eta ondorio bakarrerako sinatu dute Udal idazkaria naizen honen aurrean, Usurbilen; 2022ko ekainaren 15ean.

Usurbilgo Udaleko Alkatea

HURBILAGO elkarte

Lehendakaria

Udal Idazkaria



Usurbilgo Udala

1 ERANSKINA:

USURBILGO UDALA eta HURBILAGO Usurbilgo Merkatari eta Ostalarien arteko ESPARRU AKORDIOA 2022



Usurbilgo Udala

USURBILGO UDALA eta HURBILAGO Usurbilgo Merkatari eta Ostalarien elkartearen arteko

ESPARRU AKORDIOA 2022

Usurbilen 2022ko ekainaren 14ean

BATZARTURIK

Alde batetik, Itziar Aizpurua Aizpuru andrea, adinez nagusia, 72.420.920-S nortasun agiria duena, *HURBILAGO Usurbilgo Merkatari eta Ostalarien Elkartearen* Lehendakari gisa,

Eta bestetik, Agurtzane Solaberrieta Mesa, 44166340-S nortasun agiria duena, Usurbilgo Udaleko alkatea, *Usurbilgo Udalaren* izenean.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa eta kasuan kasuko ordezkariak aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

ADIERAZTEN DUTE

Usurbilen merkatarien elkarte bakarra dagoela, Hurbilago (Usurbilgo Merkatari eta Ostalarien Elkarte) dela elkarte horren izena eta Hurbilagok ordezkatzeko duela herriko merkataritza eta ostalaritza sektorea.

Hurbilago elkartearen helburu nagusia Usurbilgo herri merkataritza sustatu eta indartzea izanik, Usurbilen kokatutako herri merkataritzako establezimendu guztien onurakoak izango diren ekimenak bultzatuko dituela Hurbilagok, baita elkarteko bazkide ez diren establezimenduei zuzendutakoak ere. Aldi berean, Hurbilagok sustatutako jardueretan herri merkataritzako establezimendu ahalik eta gehienek parte hartzeko ahalegin berezia egingo dela ere adierazi nahi da.



Usurbilgo Udala

Usurbilgo herri merkataritza eta ostalaritza indartzeko plan berezia aurrera eramateko elkarlanean ari direla Usurbilgo Udala eta Hurbilago-Usurbilgo Merkatarari eta Ostalarien elkarteak, eta akordio-marko honen baitan, hurrengo helburuei begirako jarduerak garatuko dituztela bi aldeek, 2022an ere. Usurbilgo Udalak indarrean daukan Herri Merkataritza eta ostalaritza sustatzeko 2021eko Plangintzaren helburu nagusiak honakoak dira:

- 1 COVID-19ak eragindako krisi egoerari aurre egitea.
- 2 Herritarren kontzientziazioan eragitea eta Usurbilgo merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetara bezeroak erakartzea.
- 3 Herri merkataritza eta ostalaritza sektoreko eragileen dinamikotasun komertziala bermatu eta indartzea
- 4 Udalarekiko elkarlana bermatu eta Usurbilgo gizarte eragileekiko saretzea sendotzea Hurbilago elkartearen bitartez
- 5 Tokiko merkataritzaren indarguneak zein diren kontuan hartuta, informazio eta komunikaziorako teknologia berrien erabilera sustatzeko urratsak egitea
- 6 Kontsumoa eta aisialdia uztartzea.
- 7 Tokiko merkataritzaren ikuspegitik, herri gune eta auzoetako espazio publikoen erakargarritasuna hobetzeko hirigintza lanak egitea.

Usurbilgo herri-merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko, beharrezkoa dela ondorengo erabakiak gauzatu eta alde bakoitzak hartutako konpromisoak betetzea.

Alde batetik Usurbilgo Udalak eta bestetik HURBILAGO-Usurbilgo Merkatarari eta Ostalarien elkarteak, 2022an ondoko ekimenak gauzatzeko erabakia hartzea.

ERABAKIAK

1 **Usurbilgo Udalak** herri-merkataritza eta ostalaritzako plangintza garatzeko 2022an bultzatuko dituen neurriak honakoak izango dira:

1.1 Ekimena: Herri Merkataritza eta Ostalaritzako lan-mahaia dinamizatzea

| | |
|-----------------------------------|---|
| <p>Helburuak eta ekintzak</p> | <p>Usurbilgo merkataritza eta ostalaritza ordezkaritza eta Usurbilgo Udalarenak biltzen diren gunea da merkataritzako lan-mahaia. Lan-mahai horretatik Usurbilgo herri merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko Plangintza gauzatzeko lan egiten da, zehazki ekimen publikoa eta pribatuaren arteko elkarlana sustatuz. Hurbilago Elkartek 2022an garatu beharreko jardueren jarraipena egingo da lan mahai horretatik, eta merkataritzarekin lotura duten Usurbilgo Udalaren ekimen eta proiektu desberdinak ere lan-mahai horretan aztertuko dira.</p> <p>Bestalde, Hurbilago elkartearen ordezkatuak ez dauden Usurbilgo merkataritza eta ostalaritzako eragileak ere kontuan hartuko dira lan-mahaiaren dinamika eta erabakietan</p> |
| <p>Eraginkortasun adierazleak</p> | <ul style="list-style-type: none"> • 1. adierazlea: 12 hilabeteko epean egindako bilera kopurua. • 2. adierazlea: bileretako parte-hartze maila eta bilakaera, Hurbilagoko bazkideena eta bazkide ez direnena. • 3. adierazlea: lan-mahaiaren bitartez kudeatzen diren plangintzako ekintza kopurua. • 4. adierazlea: bileren eraginkortasun maila. • 5. adierazlea: hartutako neurrien betetze-maila. • 6. adierazlea: "Hirigune 2022" dirulaguntza programara aurkeztutako proiektuen eraginkortasun maila. • 7. adierazlea: herri merkataritza eta ostalaritzarekin zerikusia duten arloetan, Usurbilgo Udaleko sail ezberdinekin lortutako lankidetzak maila. |
| <p>Egutegia</p> | <p>Urte osokoa.</p> |



Usurbilgo Udala

1.2 Ekimena: Hurbilago elkarteari 2022ko jarduera-plana garatzeko laguntza eta aholkularitza tekniko eskaintzea

| | |
|----------------------------|---|
| Helburuak eta ekintzak | <p>Akordio-marko honetan jasotako Hurbilago Elkartearen 2022rako jarduera-plana gauzatzen lagunduko dio Usurbilgo Udalak Hurbilago elkarteari. Elkartearen 2022ko ekintzak gauzatzeko laguntza ekonomikoa ematez gain, merkatarien elkarrekin beraren dinamizaziorako aholkularitza tekniko ere eskainiko da Udaletik. Hurbilago elkarteko bazkide ez diren herri merkataritzako establezimenduetara akordio-marko honetako jarduerak zabaltzeko ekimenak ere bultzatuko dira aholkularitza tekniko horren bitartez. Usurbilgo Udalak 2022an ere ahalegin berezi bat egingo du, 2020an abian jarritako "gertuago.eus" egitasmoari jarraipena emateko, batetik internet eta sare sozialetan Usurbilgo tokiko merkataritzari ikusgarritasun gehiago emateko, bestetik berriz, baita saltokiei aholkularitza zerbitzu pertsonalizatua eskaintzeko ere.</p> |
| Eraginkortasun adierazleak | <ul style="list-style-type: none">• 1. adierazlea: Hurbilago Elkarteak 2022rako onartutako jarduera-planaren gauzatze maila.• 2. adierazlea: aholkularitza zerbitzuaz baliatutako merkatarien kopurua.• 3. adierazlea: Hurbilago Elkartearen jarduera-planean jasotako ekintzen eraginkortasun maila.• 4. adierazlea: ekintzetan parte hartutako merkatarien asebetetze-maila.• 5. Adierazlea: elkarteko bazkide maila, lortutako bazkide berriak.• "GERTUA@GO" egitasmoan parte hartutako establezimendu kopurua, Hurbilago-ko partaide direnak eta ez direnak |
| Egutegia | Urte osoan zehar, 2022ko urtarriletik abendura. |

1.3 Ekimena: “Usurbil Zabalik” programa, Usurbilen hutsik dauden lokaletan jarduera berriak ireki eta tokiko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu eskaintza indartzea helburu duena.

| | |
|-----------------------------------|---|
| <p>Helburuak eta ekintzak</p> | <p>“Usurbil Zabalik” egitasmoaren helburua da, Usurbilgo herri gune eta auzoetako jarduera sozioekonomikoa berreskuratu eta sustatzea. Norabide horretan, Usurbilgo Udalak bideratzen dituen egitekoak honakoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Jarduerarik gabeko merkataritza lokalen azterketa egin, lokal jabeekin hitzarmenak sinatu eta poltsa publikoa osatzea - Merkataritza lokal hutsen erakusleiho eta fatxadak atondu eta “Usurbilgo merkatarik gertu!” euskarri grafikoak ipintzea. - Enpresa ekimen berri bat abiarazteko hasierako gastuei aurre egiteko laguntzak ematea. - Alokairua ordaintzeko diru-laguntzak ematea, ekintzaileei zuzendutakoak, hutsik dauden lokaletan jarduera berri bat ezarri ahal izateko. |
| <p>Eraginkortasun adierazleak</p> | <ul style="list-style-type: none"> • 1. adierazlea: jarduerarik gabeko lokal hutsen kopurua • 2. adierazlea: lokal hutsen Poltsa Publikoa osatzen duten lokal kopurua eta lokal jabeekin sinatutako hitzarmenak • 3. adierazlea: Udalak alokairua ordaintzeko emandako diru-laguntza kopurua eta diru-laguntzen zenbatekoa • 4. adierazlea: hutsik zeuden lokaletan irekitako merkataritza jarduera berriak |
| <p>Egutegia</p> | <p>2022ko urtarriletik abendura</p> |

1.4 Ekimena: Askatasuna plaza eta Zubiaurrenea kalearen arteko irisgarritasuna hobetzea

| | |
|----------------------------|--|
| Helburuak eta ekintzak | Helburua izango da, Usurbilgo erdigunearen (Kale Nagusia, Dema Plaza eta Mikel Laboa plaza) eta Zubiaurrenea eta Sagardo Plaza eremuen arteko oinezko irisgarritasuna hobetzea, bi merkataritza eremuen arteko oinezko fluxuak sustatze aldera. Horretarako, Usurbilgo Udalak, Askatasuna Plaza eta Zubiaurrenea kalearen artean oinezkoentzako pasabide berri bat eraikiko du, zuzenagoa eta erosoagoa izango dena oinezko joan-etorrietarako. Pasabide berri hori egin ahal izateko, orain Zubiaurrenea Kalean dauden autoentzako aparkaleku plaza gutxi batzuk kendu egingo dira. |
| Eraginkortasun adierazleak | <ul style="list-style-type: none"> • 1. adierazlea: Oinezko pasabide berriaren erabilera-maila • 2. adierazlea: Zubiaurrenea eta Sagardo Plaza inguruko merkatarien balorazioak • |
| Egutegia | 2022ko iraila-azaroa |

Aurrekontuak eta finantziario iturriak:

| Ekimena | | Aurrekontua (BEZ barne) eta baliabideak | Finantzaketa |
|---------|--|--|-----------------|
| 1 | Merkataritzako lan-mahaia dinamizatzea | - Udal bertako giza baliabideak eta baliabide teknikoak. | Usurbilgo Udala |
| 2 | Hurbilago Elkarteari 2022ko jardueraplana garatzeko laguntza eta aholkularitza teknikoa eskaintzea eta Hurbilago elkarteak antolatutako ekintzak garatzeko diru-laguntza | - Aholkularitza teknikorako enpresaren kontratazioa 2022: 21.296,00 € - Hurbilago elkarteari diru-laguntza: 21.000,00 € | |
| 3 | “Usurbil Zabalik” diru-laguntza deialdia: | - 25.000,00 € | Usurbilgo Udala |
| 4 | Askatasun Plaza eta Zubiaurrenea Kalearen arteko oinezko pasabide berria egitea | - 11.110,66 € | Usurbilgo Udala |
| GUZTIRA | | 78.406,66 € | |



Usurbilgo Udala

2 HURBILAGO-Usurbilgo Merkataritza eta Ostalaritza elkartek, 2022an garatuko dituen lan-ildoak, jarduerak, egitekoak eta aurrekontuak honakoak izango dira:

Hurbilagoren 2022ko lan ildoak, Usurbilgo herri merkataritza biziberritzeko plangintzak jasotzen dituenak izango dira:

- 1 Merkataritza elkarteen beraren dinamika eta bazkideen inplikazio maila hobetzea. Horretarako Zuzendaritza Talde berri bat eta lan taldeetan oinarritutako lan dinamika berri bat martxan jarriko ditu Hurbilago.
- 2 Hurbilagotik antolatutako ekimenak, Usurbilgo Udalarekin elkarlanean arituta, Usurbilgo tokiko merkataritzako establezimendu ahalik eta gehienetara zabaltzea.
- 3 Usurbilgo herritar eta bezeroen fidelizaziorako promozioak eta komunikazio jarduerak antolatzea.
- 4 Usurbilgo herri merkataritza sustatzeko sentsibilizazio kanpainak antolatzea, bezero eta herritarrei zuzenduak.
- 5 Tokiko merkataritza dinamizatzeko azokak eta herri ekimenak antolatzea.
- 6 Merkataritza eta sektoreko profesionalen prestakuntza sustatzea, bereziki informazio eta komunikaziorako teknologia berrien arloan.
- 7 Usurbilgo herri guneko merkataritza eskaintza zabaltzea eta eraberritzea, horretarako, Usurbilgo Udalaren "Usurbilgo Zabalik" egitasmoaren baitan, Usurbilgo Udalarekin lan koordinatua eginez.
- 8 Ostalaritza sektorea dinamizatzea, herri-merkataritzaren zerbitzu-osagarri gisa. Horrez gain, ostalaritza sektoreko eragileen arteko elkarlana sustatzea, bereziki, sektoreari eragiten dioten udalari mailako egitasmoetan (terrazen erabilera, sexu erasoaren aurkako protokoloaren ezarpena, euskararen sustapena...).
- 9 Hurbilago elkartea beraren eta Usurbilgo merkataritzaren digitalizazioa indartzea, bereziki "gertuago.eus" proiektu berriaren dinamizazio eta sustapen lana eginez, Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritzako establezimendu guztiak. Usurbilgo Udalaren Usurbilgo herri merkataritza eta ostalaritza indartzeko 2020ko planean jasotakoari jarraiki, tokiko merkataritzaren digitalizazio prozesurako urrats berri bat eman zen 2021ean eta jarraipena izango du proiektu horrek 2022an ere.



Usurbilgo Udala

Bederatzi lan-ildo horien baitan, Hurbilago elkarteak 2022an antolatuko dituen ekintzak zein izango diren zehazten da ondoren, jarduera-mota bakoitzerako:

2.1 Jarduera: Hurbilago Elkartearen barne dinamizazioa eta merkatarien arteko elkarlana bultzatzea.

| | |
|-----------------------------------|---|
| <p>Helburuak eta ekintzak</p> | <p>Hurbilago Elkartearen zuzendaritza taldea indartu, bazkideen arteko lankidetzaren eremuak eta sinergiak aktibatu, elkarte dinamikoagoa egin eta Usurbil mailako esku-hartze estrategia bateratuetan bazkideen inplikazioa areagotzea izango da helburua. Horretarako, 7 lan-talderen arabera lan antolaketa eta ardura banaketa egingo du Hurbilagok. Lan-talde horiek dira: 1- Zuzendaritza Taldea; 2- Komunikazioa eta Publizitatea; 3- Kale animazioko jarduerak; 4- Zozketak eta promozioak; 5- “Gertu” fidelizazio eta VISA txartela; 6-Ostalariak eta 7- gertu@ago.eus sare sozialak eta aholkularitza (lan-talde horietako bakoitzaren egitekoei buruzko informazio zehatzagoa, Hurbilagoren 2022ko Jarduera-Plangintzaren dokumentua dago jaso).</p> <p>Hurbilagoren 2022eko promozio eta komunikazio ekintzak bazkide ez diren komertzioetara ere zabaltzen ahaleginduko da Hurbilago, besteak beste, gertu@ago.eus egitasmoaren bitartez.</p> <p>Bestalde, Hurbilago-ren barruan eta merkatari nahiz ostalarien inplikazio-mailaren arabera, elkartekide izateko bi aukera eskainiko dira: “Hurbilagoko Partaide” eta “Hurbilagoko laguntzaile”</p> <p>Azkenik, arreta berezia ipiniko da negozioen erreleboa ziurtatzeko ahaleginean, hau da, erretiroagatik eta bestela ere, denda itxi daitekeela aurreikusitako kasuen jarraipena egitea garrantzitsua dela ikusten da, kasuan kasu, erreleboa ziurtatzeko zein aukera egon daitezkeen aztertu ahal izateko.</p> |
| <p>Eraginkortasun adierazleak</p> | <ul style="list-style-type: none"> • 1. adierazlea: Hurbilagoko elkartekideen kopuruak (bazkideenak eta merkatari/ostalari laguntzaileenak) • 2. adierazlea: jarduera-adar ezberdinetako ordezkartza maila elkartean • 3. adierazlea: lan-talde bakoitzaren dinamika eta inplikazio maila, dagozkion zeregin eta ekintzetan • 4. adierazlea: bazkideen parte-hartze maila elkarteak antolatutako ekintzetan • 5. adierazlea: Hurbilagoko bazkide ez diren establezimenduen partaidetza-maila |
| <p>Egutegia</p> | <p>2022ko apiriletik abendura</p> |

ESKU85135a6a-a4cf-42da-9589-e1e4e52faa7d

2.2 Jarduera: Tokiko merkataritza eta ostalaritza sustatzea helburu duten iragarkiak eta komunikazio euskarriak prestatu eta zabaltzea

| | |
|-----------------------------------|---|
| <p>Helburuak eta ekintzak</p> | <p>Jarduera honen helburua da, orokorrean eta herritarren artean, tokiko merkataritza erosteko ohiturak sustatzea; horrekin batera, baita, Usurbil bertako herri merkataritza eta ostalaritzako establezimendu txikiak promozionatzea ere.</p> <p>Komunikazioaren alorrean Hurbilagok 2022an aurrera eramango dituen ekintzak honakoak izango dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1 Dantza eguna 2022- Orbeldi Dantza Taldearekin lankidetzan, HURBILAGOKo establezimenduak apaintzea. 2 HURBILAGO-ko establezimenduen identifikaziorako pegatina edo eranskailua ipintzea. 3 Herrian bertan erosketak egitearen garrantziaz herritarrak sentsibilizatzeko iragarkiak, kartelak eta difusio digitalerako ekintzak (sare sozialak). 4 HURBILAGO elkartekoak diren establezimenduen promozioa egitea Noaua! herri aldizkariko iragarkien bitartez. 5 HURBILAGO-k antolatutako ekintzen publizitatea eta tokiko merkataritza eta ostalaritzaren aldeko sentsibilizazioa egitea Noaua! herri aldizkariaren bitartez. 6 Usurbilgo establezimenduen kanpoaldean jartzeko euskarriak egitea ("argiztatu herria" alfonbrak), Usurbilgo denda txikien ikusgarritasuna lortzeko helburuarekin. 7 Bertako komertzioen promozioen informazioa bidali SMS mezuen bitartez. |
| <p>Eraginkortasun adierazleak</p> | <ol style="list-style-type: none"> 1 adierazlea: ekintza bakoitzean parte hartutako Usurbilgo herri merkataritzako establezimenduen kopurua 2 adierazlea: tokiko hedabideetako iragarkien zabalpen eta irismen maila, paper euskarrian eta euskarri digitaletan. 3 adierazlea: herritarren sentsibilizazio kanpainaren hedabideetako oihartzun maila 4 adierazlea: sare sozialen bitartez lortutako zabalpen maila eta jarraitzaile kopuruak 5 adierazleak: bideratutako komunikazio edo promozio ekintza bakoitzaz dendari eta ostalariek egindako balorazioak |
| <p>Egutegia</p> | <p>2022ko maiatzetik abendura</p> |

| | |
|--|--|
| | |
|--|--|

2.3 Jarduera: Usurbilgo establezimenduetako bezeroak fidelizatu eta bezero berriak erakartzea ere helburu duten ekintzak bideratu eta zerbitzuak eskaintzea

| | |
|----------------------------|---|
| Helburuak eta ekintzak | <p>Lehendik Usurbilgo saltoki txikiek dituzten bezeroen fidelizazioa indartu eta bezero berriak erakartzea izango da Hurbilagok 2022an aurrera eramango dituen ondorengo ekintzen helburua:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1 ekintza: bezeroen fidelizazioa saritzeko, telazko poltsak oparitzea 2 ekintza: 2022an zehar, bezeroak saritzeko bi “tonbola” edo zozketa antolatzea (lehen a ekainean eta bigarrena urria-azaroan). 3 ekintza: herriko saltokien salmentak areagotzeko, zuzeneko deskontuak eskaintzea 4 ekintza: “GERTU” fidelizazio txartelarekin, %2ko deskontua eskaintzea, saltoki berean bigarren erosketa bat egiteko. 5 ekintza: “GERTU” fidelizazio txartelarekin, bestelako promozio ekintzak (5,10 eta 20 euroko erosketa bonoen zozketa...). 6 ekintza: gabonetako zozketa berezia antolatzea 7 ekintza: Usurbilgo denda eta ostalaritza establezimenduetan bezeroek erabili ahal izateko aterkiak ipintzea 8 ekintza: bezeroek erabili ahal izateko merkataritza aparkaleku-urdinetarako diskoak eskaintzea |
| Eraginkortasun adierazleak | <ol style="list-style-type: none"> 1 adierazlea: ekintza bakoitzean parte hartutako Usurbilgo herri merkataritzako establezimenduen kopurua 2 adierazlea: bezeroei zerbitzu hobea eskaintzeko dendetan ezarritako elementuen erabilera maila (poltsak, aterkiak) 3 adierazlea: gabonetako zozketan parte hartutako bezero kopurua 4 adierazlea: aparkaleku urdinetarako banatutako disko kopurua 5 adierazlea: ekintza bakoitza indarrean dagoen egunetan salmentetan izandako eragina 6 adierazlea: ekintza bakoitzaren inguruan herritarrek eta bezeroek egindako balorazioak eta ekarpen kualitatiboak |
| Egutegia | 2022ko urtarriletik abendura |

2.4 Jarduera: Tokiko merkataritza eta ostalaritzarentzat onuragarriak izango diren kale animazioko eta merkataritza-guneen dinamizaziorako ekintzak egitea

| | |
|-----------------------------------|--|
| <p>Helburuak eta ekintzak</p> | <p>Tokiko Merkataritzaren azoka bat egin nahi da, gabon aurretik, 2022ko azaroa amaieran edo abenduaren hasieran, bertako merkatariekin, Usurbilgo kultur eragile eta sortzaileekin eta Usurbilgo merkatarien eskaintza osatzeko, interes berezia duten beste herrietako eragileekin.</p> <p>Bestalde, merkataritzaren ikuspegitik Usurbilgo herri gunearen eta bereziki bertako merkataritza eremu eta saltokien gabon garaiko girotea eta erakargarritasuna hobetze aldera, “argiztatu herria” egitasmoko kale apaingarriak (“egurrezko etxeak”) ipiniko dira herriguneko bi puntu ezberdinetan: “babarrun” rotondan eta “Bordatxoko” rotondan.</p> <p>Hirugarrenik, COVID-19 pandemiaren aurretik Hurbilagok antolatzen zuen San Silvestre herri lasterketa ere berriz antolatuko da 2022an. Horrenbestez ekintza nagusiak hiru dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1 ekintza: Udazkeneko Azoka antolatzea 2 ekintza: Usurbilgo herri gunearen gabonetako apainketa lanak (“Argiztatu herria” egurrezko etxetxoak). 3 Ekintza: San Silvestre herri lasterketa |
| <p>Eraginkortasun adierazleak</p> | <ol style="list-style-type: none"> 1 adierazlea: Udazkeneko Azokan parte hartutako Usurbil bertako eragileak eta kanpotik etorritakoak 2 adierazlea: Udazkeneko Azokarekin Usurbilgo eragileek lortutako salmentak 3 adierazlea: gabonetan Usurbilgo herri gunea girotzeko gabonetan ipinitako euskarrien eta egindako apainketa lanen erakargarritasun estetikoa eta inpaktua 4 adierazlea: gabonetako San Silvestre herri lasterketa, 2022ko abenduaren 31ean 5 adierazlea: aurreko hiru ekimenek herri bizitzan eta tokiko merkataritzan izandako eraginarekiko balorazioak |



Usurbilgo Udala

| | |
|----------|----------------------------------|
| Egutegia | 2022ko azaroa eta abendua artean |
|----------|----------------------------------|

2.5 Jarduera: "GERTU@GO" Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritzaren komunikazio eta digitalizazio proiektua

| | |
|----------------------------|---|
| Helburuak eta ekintzak | <p>Helburuak dira:</p> <ul style="list-style-type: none">- Sektoreari begira: Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritza indartzeko komunikazio estrategia berri bat martxan jartzea, sektorea pixkanaka digitalizatzeko urratsak ematea. Horrez gain, baita saltoki bakoitzari, modernizazio, komunikazio, estetika, kanpo komunikazio eta marketing arloko estrategietarako aholkularitza pertsonalizatua eskaintzea ere.- Hurbilago elkarteari begira: elkarteak antolatzen dituen zabalpena egitea sare sozialen bitartez eta Hurbilagokoak diren establezimenduak promozionatzea "gertuago.eus" web ataria eta bere sare sozialen bitartez (Instagram eta Facebook).- Hurbilagokoak ez diren establezimenduei begira: Usurbilgo beste establezimenduekiko lankidetzak indartzea eta Hurbilago elkarteak bazkide izatearen onurak balioan jartzea.- Bezero eta herritarrei begira: tokiko merkataritza eta ostalaritzarekiko erreferentziakoa izango den erakusleho bateratu bat sortzea. |
| Eraginkortasun adierazleak | <ol style="list-style-type: none">1 adierazlea: proiektuan parte hartzen duten establezimenduen kopurua, Hurbilago elkarteak eta gainerakoak2 adierazlea: establezimenduen web atariaren bitartez eskainitako aukera eta promozio kopurua3 adierazlea: webgunean eskainitako zerbitzuen erabilera maila4 adierazlea: sare sozialekin lortutako inpaktua |
| Egutegia | 2022ko ekainetik abendura |



Usurbilgo Udala

Hurbilagoren 2022ko jardueren aurrekontu aurreikuspena:

Hitzarmen honen aurreko atalean jasotako ekimenak aurrera eramateko Hurbilagok 2022rako egina duen aurrekontu aurreikuspena, **40.091,00** eurokoa da, BEZ barne eta bezeroei egindako opari eta deskontuen gastuak sartu gabe.

| Ekintzak | | Gastuak (€, BEZ gabe) | Gastuak (€, BEZ barne) |
|----------|---|-----------------------|------------------------|
| 1 | Hurbilago elkartearen barne dinamizazioa, merkatari nahiz ostalarien arteko elkarlana, Hurbilago-ren bitartez eta Usurbilgo Udalaren laguntzarekin (Siadeco-ren bitartez) | - | - |
| 2 | Tokiko merkataritzak eta ostalaritzak sustatzea helburu duten iragarkiak eta komunikazio euskarriak prestatu eta zabaltzea: <ul style="list-style-type: none">- Noaia! aldizkari iragarkiak: 4.080,00 €- Hurbilago-ko establezimenduen identifikaziorako eranskailuak: 1.000,00 €- Establezimenduei ikusgarritasuna emateko "alfonbrak": 2.000,00 € | 5.851,24 € | 7.080,00 € |
| 3 | Usurbilgo establezimenduetako bezeroak fidelizatu eta bezero berriak erakartzea ere helburu duten ekintzak bideratu eta zerbitzuak eskaintzea: <ul style="list-style-type: none">- Bezeroak saritzeko bi tonbolen komunikazio eta antolaketarako euskarriak: 7.591,00 €- "GERTU" fidelizazio txartelaren promozioen komunikaziorako kartelen diseinua eta inprimaketa gastuak: 1.160,00 €- Gabonetako zozketaren kartelak eta tiketak: 1.460,00 €- Establezimenduei ikusgarritasuna emateko "alfonbrak": 2.000,00 €- Merkataritzako aparkaleku urdinen erabilerako diskoak egitea: 1.815,00 € | 11.591,74 € | 14.026,00 € |
| 4 | Tokiko merkataritzak eta ostalaritzarentzat onuragarriak izango diren kale animazioko eta merkataritzak-guneen dinamizaziorako ekintzak egitea: <ul style="list-style-type: none">- Udazkeneko Azokaren komunikazio eta antolaketa gastuak: 1.815,00 €- Gabonetako kale argiztapena eta apainketen muntaia gastuak ("Egurrezko etxeak"): 1.750,00 €- San Silvestre herri lasterketaren komunikazio eta antolaketa gastuak: 2.420,00 € | 4.946,28,00 € | 5.985,00 € |
| 5 | "GERTU@GO" Usurbilgo tokiko merkataritzak eta ostalaritzaren komunikazio eta digitalizazio proiektuaren dinamizazioa | 10.743,80 € | 13.000,00 € |
| GUZTIRA | | 28.186,78 € | 40.091,00 € |

3 Usurbilgo Udala eta Hurbilago Merkatari eta Ostalarien elkartearen elkarlan akordio hau, 2022 urtean egongo da indarrean.

ESK085135a6a-a4cf-42da-9589-e1e4e52faa7d



Usurbilgo Udala

- 4 Jarraipen organo bat eratuko da ezarritako neurriak aztertzeko, helburuen lorpena neurtzeko eta hauek neurtzeko ezarri diren adierazleak baloratzeko.

- 5 Jarraipen organoa, Usurbilgo Udalak, Hurbilago elkarteak eta Herri Merkataritza eta Ostalaritzako Lan Mahaia kudeatzeko Usurbilgo Udalarari aholkularitza teknikoa ematen dion enpresako ordezkariak osatua egongo da.

Bi aldeek dokumentu honetan azaldutakoa berretsi dute eta, hala jaso gero dadin, bi kopian sinatu dute goiburuko leku eta egunean; alde bakoitza ale batekin geratzeko da.

USURBILGO UDALA

Sin.: Agurtzane Solaberrieta Mesa

HURBILAGO Elkartea

Sin.: Itziar Aizpurua Aizpuru

Nire aurrean

IDAZKARIAK

Sin: Garazi Etxeberria San Miguel

ESKU85135a6a-a4cf-42da-9589-e1e4e52faa7d



Usurbilgo Udala

2 ERANSKINA: “GERTU@GO” Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritzaren komunikazio eta digitalizazio proiektua



Usurbilgo Udala

1. Kokapena

Covid-19 pandemiak tokiko merkataritza eta ostalaritzan sortutako egoerari aurre egiteko, "gertuago.eus" egitasmoa jarri zuen abian Usurbilgo Udalak 2020an, HURBILAGO elkartearekin elkarlanean arituz. Usurbilgo herritarrentzat, erreferentziazko webgune berri bat izatea lortu zen, Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritzan erosi edota kontsumituta, %20ko beherapena eskuratzeko aukera eskaini zelako webgune horren bitartez.

2021 urtean, fase berri bat ireki zen eta Usurbilgo Udalaren 2020ko plangintzak jasotzen dituen erronkei erantzutea izan zen helburua: Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritza indartzeko komunikazio estrategia berri bat martxan jartzea, sektorearen digitalizatorantz urratsak ematea, sektore bertako eragileak aktibatu eta dinamizatzea eta herritarrentzat, tokiko merkataritza eta ostalaritzarekiko erreferentziazkoa izango den erakusleihu bateratu bat sortzea.

2022an ere, 2021ean abiatutako fase berriari jarraipena emango zaio, gertuago.eus web gunea elikatzen jarraituz, egitasmo horren sare sozialak elikatzen jarraituz, eta horrez gain, Usurbilgo herri merkataritza eta ostalaritzako establezimenduen moderninazio, komunikazio eta marketing arloko estrategiak aurrera eramateko aholkularitza pertsonalizatua ere eskainiz.

Jarraian, proiektuaren helburuak, ezaugarriak eta aurreikusitako dinamizazio lanak, epeak eta aurrekontuak zehazten dira.

GERTU@GO egitasmoaren dinamizazio lanetarako aurreikusitako gastuak finantzatzeko, ezinbestekoa da HURBILAGOrentzat Usurbilgo Udalaren babesa eta dirulaguntza.

2. Proiektuaren helburuak

2022an garatuko den GERTU@GO egitasmoaren honako helburuak izango ditu:

- 1 Usurbilgo Udalaren tokiko merkataritza eta ostalaritza indartzeko plangintzaren sozializazioa egitea.



Usurbilgo Udala

- 2 Usurbilgo Udalaren GERTU@GO marka gizarteratzea.
- 3 Hurbilago elkarteak antolatzen dituen jardueri zabalpena ematea, "Gertu@ago" sare sozialen bitartez.
- 4 Udalak eta Hurbilagok merkataritza eta ostalaritzaren baitan egiten dituzten ekimen guztien komunikazioa zentralizatzea.
- 5 Usurbilgo denda eta ostalaritza zerbitzuei aholkularitza zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea, komunikazioa eta marketing-aren alorretan.

3.

GERTUAGO.EUS ATARI BERRIAREN AUKERAK

- 1 **Erakusleiho bateratua:** Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritzako ahalik eta establezimendu gehien, internet-eko atari bakar batean egongo dira.
- 2 **Produktuen katalogoa:** Establezimendu baten produktuak erakutsi ahal izango dira, prezioarekin edo gabe. Establezimendu bakoitzak erabakiko du zer nolako katalogoa eraiki nahi duen (soilik nobedadeekin, produktu guztiak, salduenak, etorriko direnak...).
- 3 **On-line salmenta:** Katalogoaz gain, salmenta egiteko aukera aurreikusten da. Horretarako establezimendu bakoitzak bere pasarela aktibatu beharko du eta gestio administratiboa eraman. Horretan, HURBILAGOk kontratatutako dinamizatzailak lagunduko dio.
- 4 **Komunikazio aukerak:** Newsletter sistema, WhatsApp bidezko harremana, sare sozialak eta abar.
- 5 **Kanpainak:** establezimenduek maila indibidualean egiten dituztenak, sektoreka, Hurbilagotik edo orokorrean.
- 6 **Erreserbak egiteko aukera:** beharizanen arabera aktibatuko da aukera hau.

4.

FUNZIONAMENDUA ETA HURBILAGO-REN EGITEKOAK

HURBILAGO elkarteak, Uxue Bereziartua profesionalaren zerbitzuak kontratatuko ditu, zerbitzu-kontratu horren bitartez jasoko dituen zerbitzuak honakoak izanik: gertu@go webgunea eguneratu eta berritzea, bere sare sozialak dinamizatzea, dendei aholkularitza zerbitzua ematea, etiketajeak eta karteldegia zerbitzua, eskaparateen diseinua



Usurbilgo Udala

eta antolaketa, saltzeko estrategiak, merkataria eta ostalari bakoitzaren sare sozialetarako laguntza teknikoa eta hedabideetan publizitatea jartzerakoan aholkularitza ematea.

Uxue Bereziartuaren zerbitzuak eta lana kontratatuko du Hurbilagok, "gertuago.eus" web plataforma beraren eta bere sare sozialen bitartez, Usurbilgo establezimendu txiki guztiei ondorengo zerbitzuak eskaintzeko:

- 1 **HURBILAGOk online plataforma bat eskainiko die Usurbilgo tokiko merkataritza eta ostalaritzako establezimendu guztiei:** atariak establezimenduen ikusgarritasuna bilatu nahi du eta establezimendu bakoitzaren esku egongo da plataforma edo tresna hori zertarako baliatu.
- 2 Online plataforma horretara igo beharreko **informazioa eskatu, jaso, idatzi, maketatu eta web atarira igotzeko lanak** egingo ditu.
- 3 Establezimendu bakoitzarekin, **webgunearen aukera ezberdinez baliatu ahal izateko dinamizazio lana egin eta informazioa jaso** (katalogoa, promozioak, online salmenta...)
- 4 **Sare sozialak** dinamizatu
- 5 **Usurbilgo Udala eta HURBILAGO elkartearen berriak eta egitasmoak** sareratu.
- 6 **Web ataria etengabe eguneratu**, mantenu lanak egin eta sortzen diren intzidentzia edo gertaerei erantzun.
- 7 Aurreko zerbitzu guztiak, **inolako kosturik gabe** eskainiko dizkie HURBILAGOk erabiltzaile guztiei.
- 8 Zerbitzu horiek emateko, **proiektuaren dinamizazio lanak egiteaz arduratuko den enpresa bat kontratatuko du HURBILAGOk**. Dinamizazio lanak egingo dituen pertsonak, astean 20 orduko dedikazioa izango du proiektu honetarako.

5. EPEA ETA AURREKONTUA

HURBILAGO elkarteak egitasmo honen dinamizazio lanetarako, 12 hilabeteko iraupena izango duen zerbitzu kontratazioa egingo du Uxue Bereziartuarekin, 2022ko ekainaren 1etik, 2023ko



Usurbilgo Udala

maiatzaren 31ra artekoa. Kontratatu dituen zerbitzuen 12 hilabetetarako kostua, 13.000,00 eurokoa izango da (BEZ %21 barne).



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU85135a6a-a4cf-42da-9589-e1e4e52faa7d**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07310>**